

# Esne Bidearen bihotza, gertutik


Argazkiak: I. Heywood/SARAO




Gure galaxiak inoiz eman duen irudirik eder eta esanguratsuena lortu dute SARAO behatoki afrikarrean. Galaxien urrutiko irudiak ikustera ohituta, harrigarria da Esne Bidearen bihotzean halako aktibitatea dagoela ikustea. Ekaitz elektrikoek argitzen dute galaxiaren erdigunea: lehertzen eta hiltzen ari diren izarrak ikusten dira; leherketa horiek eraginda zabaltzen ari den materia; jaiotzen ari diren izarrak...

Galaxiaren erdian dagoen zulo beltz supermasiboaren ageri da irudian: Sagitario A, lau milioi Eguzkiren adinako masa duena. Eta, agian bereziena, energia-harizpi luzeak. 100 argi-urteko luzera duten zuntzak dira. Duela 35 urte ikusi zituzten lehenengoz zientzialariek, baina oraindik ez dute ulertzen nola sortu diren.


Energia-harizpi misterioitsuak dira arreta gehien lortu dutenak. 1.000 argi-urteko zabalera duen energia-burbuila ikaragarri handi baten parte dira, Sagitario A zulo beltz supermasiboaren gainean azaltzen dena. Zuntz luzeak, paraleloak eta bihurrituak dira, eta inoiz ez dira halako zehaztasunez ikusi. Galaxiaren irudi berriak hainbat harizpi-multzo jaso ditu; beraz, haien ezaugarriak ikertzeko bidea emango duela uste dute ikertzaileek.





Hego Afrikako SARAO behatokiko MeerKAT irrati-teleskopio berriaz lortu dute irudi berria. Argi ikuskorreko teleskopioek ezin dituzte hauteman Esne Bideko egitura asko, eremu asko ilun azaltzen baitira, hauts kosmikoz osatutako hodeien erruz. Erradio-uhinek, ordea, zeharka ditzakete hautsezko hodeiak, eta galaxiaren bihotza gertutik ikusteko aukera eman dute.

MeerKAT sentikortasun handiko irrati-teleskopioa da: 64 antena ditu, Hego Afrikako desertu batean barreiatuta. Hogei behaketa luze eta hiru urteko lana behar izan dituzte irudia lortzeko. Lortutako irudian Esne Bidearen eremu bat bakarrik azaltzen da, galaxiaren eremurik aktiboena dena. 1.000 argi-urteko zabalera jaso du irudiak. *The Astrophysical Journal* aldizkarian argitaratu dute. ●



Beste eremu honetan, G359.1-0.5 izenez ezagutzen den hodeia azaltzen da. Supernoba baten eztandaren arrasto distiratsuak dira. Eta, ezkerrean, Sagua izenez ezagutzen dena, supernoban sortu baina handik ateratako pulsar bat. Eskuinean, Sugea, ezagutzen den energia-harizpirik luzeena.